

Euskal AEko ingurumen-ekonomiak sortutako balio erantsia % 10,6 hazi zen 2019an


Enpleguari dagokionez, 22.086 lanpostu sortu zituen, ekonomia osoaren % 2,27.

Ingurumen-ekonomiaren **Balio Erantsi Gordina (BEG)** 1.449 milioi eurokoa izan zen 2019an, hau da, urte horretako BPGren % 1,8, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2018. urteari dagokionez, ingurumeneko BEGaren urte arteko hazkunde-tasa % 10,6koa izan zen, ekonomia osoko Barne Produktu Gordinarena (% 3,4) baino nabarmen handiagoa.

Ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen kontua ingurumen-kontuen sistemaren parte da, eta Eurostaten metodologiari jarraituz egiten da. Kontu horiei esker, ekonomia- eta ingurumen-alderdiak modu koherentean integra daitezke Kontabilitate Nazionalaren sisteman. Ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen azpisektorea (ingurumen-ekonomia) hauek osatzen dute: batetik, **ingurumena babesteko** ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituen ekonomiaren parteak, eta, bestetik, ingurumenaren gaineko presioak murrizteko edo ezabatzeke **baliabide naturalak kudeatzeko** jarduerak.

Sektore ekonomikoen arabera, eta BEGari dagokionez, Erauzketa- eta manufaktura-industriek egindako ekarpena nabarmentzen da, ingurumeneko guztizkoaren % 27,1arekin, eta, ondoren, Zerbitzuen sektorea (% 26,3) eta Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa (% 23,4) datoz. 2019an, sektore hauek ingurumen-ekarpen txikiagoa izan zuten: Eraikuntzak (% 15,8), Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (% 4,0) eta, azkenik, Lehen sektoreak (% 3,4).

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, jarduera ekonomikoen arabera
(%). 2019



Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Denboran izandako bilakaera aztertuta, ondorioztatzen da sektore gehienek ingurumen-BEGa handitzen dutela, eta eraikuntzaren sektorea nabarmentzen da modu positiboan, urte arteko % 65,8ko hazkundearekin 2019an, eta ingurumen-BEGari egindako ekarpena % 5,3 igoz aurreko urtearekin alderatuta. Eraikuntza berriek energia-ziurtagiriei buruzko legedian izan dituzten aldaketek azaltzen dute bilakaera hori. Bigarrenik, Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzen sektoreak % 34,5eko hazkundera izan du. Kontrako joera erakutsi du Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua hornitzeko sektoreak, % 41,7 jaitsi baita.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, jarduera-taldean arabera (mila euro). 2017-2019

	2017	2018	2019 (p)	Ingurumeneko BEGaren gainera %			Urteko aldakuntza tasa (%)	
				2017	2018	2019 (p)	2018/2017	2019 (p)/2018
Ingurumeneko BEG, guztira	1.206.924	1.309.942	1.449.091	100,0	100,0	100,0	8,5	10,6
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	40.557	37.133	49.944	3,4	2,8	3,4	-8,4	34,5
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	345.089	362.466	392.093	28,6	27,7	27,1	5,0	8,2
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	97.217	99.027	57.688	8,1	7,6	4,0	1,9	-41,7
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	283.348	324.970	339.573	23,5	24,8	23,4	14,7	4,5
F: Eraikuntza	123.080	137.892	228.605	10,2	10,5	15,8	12,0	65,8
G-U: Zerbitzu-sektorea	317.633	348.454	381.188	26,3	26,6	26,3	9,7	9,4
B.P.G. m/p	73.697.375	76.888.235	79.537.107				4,3	3,4

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumen arloko jarduerak sortutako **enplegua**, lanaldi osoko lanpostu baliokide (LOB-ETC) gisa neurtuta, 2019an erregistratutako enplegu guztiaren % 2,3 izan zen, % 15,8ko hazkundearekin.

Sektore ekonomiko bakoitzaren ingurumen-enplegua aztertzen badugu, lehenik eta behin zerbitzuen sektorea nabarmentzen da, ingurumen-enplegu guztiaren % 28,7 hartzen baitu; ondoren, Erauzketa-eta manufaktura-industriak (% 26,7), Eraikuntza (% 22,2) eta Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa (% 18,8) daude. Era berean, enpleguan ingurumen-ekarpen txikiak izan zuten sektoreak Lehen sektorea eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura izan ziren, % 3,3rekin eta % 0,2rekin, hurrenez hurren.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektoreko lanaldi osoko enplegu baliokidea (LOE), jarduera-taldean arabera. 2017-2019

	2017	2018	2019 (p)	Ingurumeneko enpleguaren gainera %			Urteko aldakuntza tasa (%)	
				2017	2018	2019 (p)	2018/2017	2019 (p)/2018
Lanaldi osoko enplegu baliokidea	18.048	19.078	22.086	100,0	100,0	100,0	5,7	15,8
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	633	635	735	3,5	3,3	3,3	0,2	15,8
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	5.369	5.700	5.907	29,7	29,9	26,7	6,2	3,6
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	54	60	41	0,3	0,3	0,2	10,7	-31,4
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	4.111	4.088	4.147	22,8	21,4	18,8	-0,6	1,4
F: Eraikuntza	2.054	2.501	4.907	11,4	13,1	22,2	21,8	96,2
G-U: Zerbitzu-sektorea	5.827	6.095	6.349	32,3	31,9	28,7	4,6	4,2
Ekonomia osoaren LOE	938.892	960.396	974.811				2,3	1,5

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Urtetik urterako datuei dagokienez, 2019ko ingurumen-enpleguaren bilakaeran nabarmentzen diren sektoreak, urte arteko % 96,2ko tasa handia erakusten duen Eraikuntza, eta, urrun samar, Lehen sektorea dira, azken horrek % 15,8ko hazkundera erakusten baitu aurreko urtearekin alderatuta.

Ingurumen-azpisektorea ekonomia osoarekin lotzen duten **adierazle nagusiak** kontuan hartuta, ingurumeneko BEGa 2019ko BPGren % 1,8 da, aurreko urtean baino 12 ehunen gehiago, eta Lanaldi osoko enplegua enplegu osoaren % 2,3, 2018an baino 28 ehunenak gehiago.

Espainiarekin alderatuta, Euskal AEko ingurumen-jarduerak enplegu-ehuneko handiagoa dute ekonomia osoarekin alderatuta: % 2,27 Euskal AEn eta % 1,78 Espainian. Bestalde, BPGrekin erlazionatuta, ingurumeneko BEGari dagokionez, Espainiako balioa % 2,11koa da, 2019an % 1,82koa izan zen Euskal AEkoa baino handiagoa.

Euskal AEk Estatuko ekonomia osoari egindako ekarpena aztertuz gero, ikus daiteke Euskal AEko ingurumen-ekonomiaren BEGak estatuko ingurumen-BEGaren % 5,53 sortu zuela 2019an. Era berean, Euskal AEko ingurumen-enplegua Estatuan sortutako ingurumen-enpleguaren % 6,75 izan zen.

Kontu honi dagokionez, nazioarteko alderaketa bat egin ahal izateko eskuragarri dauden azken datuak 2018koak dira. Ingurumeneko BEGak BPG osoari egindako ekarpenari dagokionez, urte horretan Europako (EB-27) eta Espainiako batez bestekoa % 2,27koa da bi kasuetan, eta Euskal AEkoa, berriz, % 1,7koa.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, jarduera-taldearen arabera (%). 2017-2019

	Ingurumeneko BEG BPG % kontuan hartuta			Ingurumeneko enplegua (LOE) guztizko enpleguaren (LOE) aldea		
	2017	2018	2019 (p)	2017	2018	2019 (p)
Ingurumenekoa, guztira	1,64	1,70	1,82	1,92	1,99	2,27
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,06	0,05	0,06	0,07	0,07	0,08
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	0,47	0,47	0,49	0,57	0,59	0,61
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,13	0,13	0,07	0,01	0,01	0,00
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	0,38	0,42	0,43	0,44	0,43	0,43
F: Eraikuntza	0,17	0,18	0,29	0,22	0,26	0,50
G-U: Zerbitzu-sektorea	0,43	0,45	0,48	0,62	0,63	0,65

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua


Europako Araudiari jarraiki, **bi eremu handi** bereizten dira, euren ingurumen-helburuaren arabera: **ingurumena babesteko jarduerak** eta **baliabideak kudeatzeko jarduerak**, biak elkar baztertzen duten bi sailkapenetan jasoak. Alde batetik, ingurumena babesteko jarduerak Ingurumena Babesteko Jardueren Sailkapenean (**IBJS-CAPA**) deskribatzen dira, eta, bestetik, ingurumena babesteko baliabideak kudeatzeko jarduerak Baliabideak Kudeatzeko Jardueren Sailkapenean (**BKJS-CAGR**) deskribatzen dira.

2019an sortutako ingurumeneko BEGaren guztizkoaren gaineko pisu handiena, Bestelako IBJS-CAPA kategoriari dagokio. Horren barruan sartzen dira, zarata murrizteko, biodibertsitatea babesteko eta erradiazioaren aurkako eta ingurumeneko I+G jarduerak, besteak beste, eta % 27,4ko ekarpena egiten dute. Atzetik, beste jarduera batzuk, guztizkoaren % 23,2ko ekarpena egiten duen Hondakinen kudeaketa, besteak beste.

Besteak beste, uraren, baso-baliabideen eta basoko flora eta faunaren kudeaketa bezalako jarduerak biltzen dituen Bestelako EAGK kategoriak % 25,4ko ekarpena egiten du.

BPGri dagokionez, ingurumena babesteko jarduerak (IBJS-CAPA) BPGren % 1,07 eman dute 2019an, baliabideak kudeatzeko jarduerak egiten duten % 0,75eko ekarpena baino handiagoa.

Euskal Aeko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, ingurumen-eremuen arabera (%). 2019



Enplegua aztertuz gero (lanaldi osoko lanpostu baliokideak), ingurumen-babesari lotutako jarduerak dira, baita ere, guztizkoaren aldean pisu handiena dutenak (% 1,51), baliabideen kudeaketarako jardueren % 0,76ren aldean. Zehazki, guztizkoari enplegu gehien ekarri zion ingurumen-esparrua Beste IBJS-CAPA batzuk izan zen (0,81 puntu), eta ondoren Hondakinen kudeaketa (0,54 puntu).

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, ingurumen-eremuaren arabera (%). 2017-2019

	Ingurumeneko BEG BPG % kontuan hartuta			Ingurumeneko enplegua (LOE) guztizko enpleguaren (LOE) alde		
	2017	2018	2019 (p)	2017	2018	2019 (p)
(IBJS + BKJS) GUZTIRA	1,64	1,70	1,82	1,92	1,99	2,27
IBJS GUZTIRA	0,91	0,95	1,07	1,20	1,25	1,51
IBJS 1 - Airearen eta klimaren babesa	0,02	0,02	0,02	0,03	0,03	0,04
IBJS 2 - Hondakin-uren kudeaketa	0,09	0,09	0,10	0,07	0,07	0,07
IBJS 3 - Hondakinen kudeaketa	0,41	0,42	0,42	0,55	0,53	0,54
IBJS 4 - Lurzoruak, lurpeko urak eta lurrazaleko urak babestea eta deskontaminatzea	0,02	0,03	0,03	0,04	0,05	0,05
BESTE IBJS BATZUK	0,37	0,39	0,50	0,51	0,56	0,81
BKJS GUZTIRA	0,73	0,76	0,75	0,72	0,74	0,76
BKJS 13A - Energia iturri berriztagarrien bidez ekoiztea	0,26	0,25	0,20	0,15	0,15	0,15
BKJS 13B - Energia/beroa kudeatzea eta aurrezte	0,07	0,08	0,09	0,08	0,08	0,08
BESTE BKJS BATZUK	0,39	0,43	0,46	0,50	0,51	0,53

(P) behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62